

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak enpresa batek arrakasta izan dezan garatu beharreko ekintza garrantzitsuak dira. Horretarako, gure katea arrakastatsua izateko funtsezko jarduera hauek egingo ditugu gure ikusleak telebista pizten duten bakoitzean kateaz gozatzeko.

Alde batetik, gure webgunea ondo antolatzea eta garatzeaz saiatuko gara. Horretarako, erraz erabiltzeko webgune bat sortuko dugu edozeinek erabiltzeko aukera izan dezan arazorik gabe. Dena oso argi banatuta egongo da eta ondorioz edozer gauza aurkitzeko eskura egongo da, bertan denak ulertu ahal izateko; nola erosi kamisetaren bat edo elkarrizketaren bat ikusi. Gure webgunean etengabeko berrikuntzak eta aktualizazioak egingo ditugu gure plataforma geroz eta gehiago garatzeko.



Bestetik, gure ustez enpresa barruko egitura edo giroa egokia izan behar du proiektu bat aurrera ateratzeko, hau da, direktore, kamera, aktoreen... arteko harremana ona izatea. Hori horrela bada, ideia arrakastatsua sortzeko aukera handiagoa izango da. Ondorioz, gure ikusleek gauza berriak eta erakargarriak ikusteko aukera izango dute.

Funtsezkoa izango da guretzat lan talde on bat sortzea, bakoitzak bere eginkizunak betez.

Gainera sortuko dugun aplikazioaren bidez ikusleen eta gure arteko harremana estuagoa izatea lortuko dugu. Horrela, eguneratuago eta konektatuago egongo dira. Katea ikusleak munduko edozein tokitik ikusteko aukera izango dute, horretarako publiko zabalago bat lortzeko hizkuntza askotako subtituloak jarriko ditugu. Horrez gain, gure kateak kalitate ona izango du eta seinale ona ez mozteko ikusten zauden bitartean.